

ALASKA ZAZPI MILIOIREN TRUKE



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Washington, 1867ko martxoaren 30a. Gaua negoziaketan eman ondoren, goizeko 4:00etan, Errusiak Alaska saldu zien AEBei 7,2 milioi dolarren truke. Eremu zabal izoztuak 1,5 milioi hektarea ditu eta, horrenbestez, 4,74 dolar ordaindu zuten kilometro koadro bakoitzeko. Une hartan 2.500 kolono errusiar bizi ziren han, jatorrizko 10.000 biztanle errusiar jurisdikziopean zeuden eta, horiez gain, beste 50.000 aleutiar, inuit, inupiaq, yupik... bizi zirela kalkulatzeko. Une hartan 2.500 kolono errusiar bizi ziren han, jatorrizko 10.000 biztanle errusiar jurisdikziopean zeuden eta, horiez gain, beste 50.000 aleutiar, inuit, inupiaq, yupik... bizi zirela kalkulatzeko. Une hartan 2.500 kolono errusiar bizi ziren han, eta senatuak berretsi. Transferentzia zeremonia urte bereko urriaren 18an egin zuten eta 7,2 milioiko txekoa 1868ko abuztuaren 1eko datarekin jaulki zuten.

Lurralde saltzeko ahaleginak, ordea, lehenago hasi ziren, 1850eko hamarkadan. Errusiar Inperioak zailtasun ekonomikoak zituen, Alaskako lurraldea militarri defendatzea ez zen erraza eta britainiarrek erraz hartuko zuten beldur ziren. Alaska merke saldu eta, zerbait poltsikoratuko zuten. Bestela, kolonia ezereen truke galtzeko arriskua handia zen. Gainera, ordurako, Alaskako igaraba populazioa ustiatuta eta ia agortuta zeukaten.

Alexander II.a tsarrak Alaska britainiarrei eskaini zien lehenik. Ziurrenik, haren asmoa britainiarren eta estatubatuarren arteko liskarrak areagotzea zen eta, hala,



RICHARD MARTIN-CC BY

Errusiak duela 150 urte saldu zien Alaska AEBei. Baina 7,2 milioi dolarreko txekoa hurrengo urtean jaulki zuten, 1868ko abuztuaren 1ean, Eduard Andreovich Stoeckl-en izenean. Stoecklek salerosketa negoziatu zuen Errusiako Gobernuarekin.



AEB-ETAKO ARTXIBO NAZIONALA

bi potentziak ahulduta, Errusiar Inperioaren posizioa indartuko zen. Baina britainiarrek ez zuten interesik agertu eta 1859an AEBei egin zieten eskaintza. Beste ezezko bat jaso zuten, Washingtonen hartan Gerra Zibila pizteko arriskua lehentasuna baitzen.

Errusiarren asmoa ez zen makaldu, eta AEBetako Gerra Zibila amaitutakoan negoziaketak berrabiarazi zituzten. 1867ko martxoaren hasieran eseri ziren William Seward AEBetako estatu idazkariarekin. Hilabetea amaitzear zela itxi zuten tratua.

Erosketa errentagarria izan al zen AEBentzat? Aduituak ez datoz bat erantzunean. David R. Barker ekonomialariaren ustez, Alaskan bildutako zergek ez

dute sekula gainditu salerosketaren eta lurraldea gobernatzearen kostua. John M. Miller-en iritziz, Alaskako petrolio baliabideak ustiatu zituzten enpresek ez zuten inbertsio izugarria berdintzeko irabazirik izan. Scott Goldsmith eta Terrence Cole ez datoz bat ondorio horiek ateratzeko irizpideekin, eta barne-produktua kontuan hartuz gero erosketa bikaina izan zela diote; kalkulatu baikorren arabera, 50 urtean estatubatuarrek 100 aldiz irabazi omen zuten lurraldeagatik ordaindutakoa.

2014ko martxoan, "Alaska Errusiara itzuli" mugimenduak 35.000 sinadura bildu zituen. Ez zitzaie bururatu Alaskako jatorrizko biztanleei itzuli behar zitzaizela eskatzea. ■



LOUVRE MUSEOA

Loa esplikatzeko lehen teoria

K.a. V. mendean, Krotonako Alkmeon filosofo eta medikuntzaren teorialari greziarrak loaren kausen teoria bitxia landu zuen, idatziz jasota iritsi zaigun loaren azalpenik zaharrena. Haren arabera, garuneko odol-hodiak odolez betetzean hartzen gaitu loak. Odolak garunari presioa eragiten dio eta horrek lo gura eragiten du. Garuna odolez

husten denean esnatzen gara. Zientzia modernoak, jakina, ez du teoria babesen, baina horrek ez ditu Alkmeonen lorpenak gutxitzen. Disekzio anatomikoaren aitzindari eta defendatzaile sutsua izan zen, nerbio optikoa aurkitu zuen eta sentazioak hautematen dituen organoa garuna dela egiaztatu zuen. ■